

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO PROTOKOLOA

LOR<LDIA
EUSKAL KULTURA GAUR



SARRERA

Protokolo hau Loraldiak antolatzen dituen ekitaldi eta ekintzetan aplikatuko da. Jarduera hauetan parte hartzen duten pertsona guztiek, beren rol edo posizioa edozein dela ere, protokoloaren babespean egongo dira, eta jarrera matxistak edo indarkeriazkoak prebenitu eta kudeatzeko balioko du.

Protokoloa aktibatu ahal izango dute bai parte-hartzaileek, bai publikoak, bai eta antolakuntza-lanetan aritzen diren profesionalek ere, beti ere Loraldia ekitaldien testuinguruan gertatutako gertaerei dagokienez. Ekitaldiko prestaketa eta desmuntaia tarteak ere protokoloaren baitan daude.

SEGURTASUNAK EKITALDIETAN DUEN GARRANTZIA

Ekitaldien antolatzaile garen aldetik, gure ekitaldietara bertaratzen direnei segurtasuna bermatzearen garrantziari buruzko puntu batzuk argi izan behar ditugu:

Ongizate fisikoa eta emozionala

Ekitaldietako segurtasuna funtsezkoa da parte-hartzaile guztien ongizate fisikoa eta emozionala babesteko. Ingurune segurua izanez gero, parte-hartzaileek kezkarik gabe goza dezakete ekitaldiaz.

Gertakarien prebentzioa

Segurtasun-neurri egokiak ezartzeak eraso, jazarpen eta bestelako portaera desagokiak prebenitzen laguntzen du.

Ekitaldi edo ekintza bat antolatzeko orduan publikoarengan konfiantza sortzea segurtasunaren kontrol zorrotz baten bidez, funtsezko elementua da edozein antolatzailerentzat, asistentzia handiagoa bermatzen baitu.

Bestalde, segurtasun-neurri egokirik ez izateak ekitaldiaren, antolatzaileen eta, beraz, banderadun marken izen onari eragin diezaioke.

PROTOKOLO HONEN OINARRIAK

Indarkeria matxistaren aurkako protokolo honetan alor ezberdinak jorratzen dira:

1. Prebentzioa
2. Esku-hartzea
3. Zehazpenak
4. Informazioa eta laguntza zerbitzuak

1 PREBENTZIOA

Prebentzioa da indarkeria matxistaren aurkako protokolo honen ardatz nagusietako bat.

Loraldiak antolatuko dituen jarduera eta ekitaldietan indarkeria matxista saihesteko zenbait neurri hartuko dira:

PROTOKOLOAREN EZAGUTZA

Loraldiak antolatuko dituen edozelako ekitaldi, jarduera eta abarretan parte hartuko duten langile, profesional, sortzaile eta bestelako rol izango dituztenek protokoloa ezagutu beharko dute, nola jardun jakiteko egoera desegokien aurrean. Baita Loraldiaren jarduera horietara ikusle moduan hurbilduko diren pertsonak ere.

ARDURADUNAK

Loraldiako lantaldeko 4 kideak izango dira ekintza hauetan protokoloa betearaztearen eta eraso edo arazoren bat gertatzekotan egin beharrekoak ezartzearen ardura izango dutenak.

Jardueraren batean Loraldiako 4 kideak egongo ez balira, aldezturik ezarriko da ekintza horretarako arduraduna.

Haiek arduratuko dira protokoloaren aktibazioaz.

KOMUNIKAZIOA ETA IKUSGARRITASUNA

Protokolo bat badagoela ezagutaraziko da. Honetarako, baliabide ezberdinak erabiliko dira.

Parte hartuko duten profesional, langile, sortzaile eta abarrei dokumentua helaraziko zaio.

- Loraldiak haren webgunean argitaratuko du protokoloa.
- Ekintzak hala eskatuko duenean, sortuko diren beste materiala batzuetan horren berri emango da: Loraldia Festibalaren kasuan esku-programa, adibidez.
- Loraldiako kideak modu ikusgarrian identifikatuko dira antolatzaile eta arduradun gisa, akreditazioen bidez, erasotua den edozein pertsonak norengana jo jakin dezan.
- Sentsibilizazioa: ekitaldien aurretik, prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak egingo dira indarkeria matxistaren aurka, publikoari begira.

2 ESKU-HARTZEA

Indarkeria matxista edozein ekitalditan identifikatzen denean, **jarraitu beharreko prozedura** hau izango da:

Erasoa detektatzea

Zuzeneko behaketa

Enplegatuek emakume/adingabe batekiko sexu-jokabide susmagarria ikusten badute:

- ukitzea baimenik gabe.
- deserosotasun nabarmena.
- arbuio esplizitua.

SEXU-INDARKERIAKO EGOERA BATEN BERRI EMATEA

Aretoko langileek, aretoko erabiltzaileek edo biktimaren lagunek hautemandakoa.

Ekintza

- ondo dagoen edo laguntza behar duen galdetu.
- jarrera erasotzaileagatik deseroso badago, eraso motaren arabera arreta emateko eta bideratzeko jarraibideak ematea.

LEHEN HARRERA

Loraldiako kideek artatuko dute kaltetutako pertsona, eta leku pribatu eta seguru batera eramango dute, behar bezala laguntzeko.

PROTOKOLOAREN AKTIBAZIOA

Egoeraren larritasunaren arabera, protokoloa aktibatuko da, eta arduradunek erabakiko dute hurrengo pausoak zein izango diren.

LARRIALDI ZERBITZUEN AKTIBAZIOA

Indarkeria larriak gertatuz gero, larrialdi zerbitzuak deituko dira (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.), egoera kudeatzeko eta biktimei laguntza emateko.

3 ZEHAPENAK

UNEKO NEURRIAK

Loraldiako kideek egoeraren aurrean beharrezkoa ikusten badute, emanaldia edo jarduera eten egingo dute.

Erasoa egin duen pertsonari bere jarreraren inguruan jarri den kexa jakinaraziko zaio. Eta jardueran parte hartzea gelditu eta espazioa uzteko eskatuko zaio.

Hauek izan daitezke hartu daitezkeen neurrietako batzuk, kasuan kasu baloratutako direnak eta modu proportzionalean jardunez:

- Erasotzaileak parte hartzeko eskubidea galduko du Loraldiak aurrerantzean antolatuko dituen edozein jarduera eta ekintzetan. Publiko artekoa balitz, ezin izango du inoiz gehiago parte hartuko.
- Profesionala hirugarren enpresa bateko langilea bada, enpresari jakinaraziko zaio.
- Langilea, sortzailea edo edozein arloko profesionala bada eta jarduera horren antolakuntzan lanean ibili bada, ez du Loraldiarekin inoiz gehiago parte hartuko.

4 LAGUNTZA ZERBITZUAK

Biktimak behar duen laguntza eskura izango du prozesu osoan zehar. Loraldiak jendearen eskura jarriko ditu emakumeen kontrako indarkeriaren biktimentzako zerbitzu publikoak:

Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua - SATEVI
[SATEVI emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako](#) telefono bidezko arreta zerbitzua da-
900 840 111.

Urteko 365 egunetan, egunean 24 orduz, arreta eskaintzea bermatzen duen telefono zerbitzua da. Emakumeen aurkako indarkeriaren edozein adierazpenen biktima direnei laguntza ematen duten espezializatutako profesionalak osatzen dute.

Bestetik, zerbitzu horrek aholkularitza eta informazioa eskaintzen du edozein zalantza edo gai argitu nahi duten profesionaleri, senideei edo hurbileko pertsonei.

Berehalakoa eta anonimoa den laguntza eskaintzen duen zerbitzua da. Halaber, biktimen esku dauden baliabideen inguruan eman beharreko urratsen edo informazioaren gaineko orientabideak eskaintzen ditu; eta, hala nahi badute, arreta pertsonalizatua jaso dezakete.

Deiak 51 hizkuntzatan erantzuten dira eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko zerbitzua du.

Gune segurua da, inork ez du jakingo dei egin dutela telefono-fakturan arrastorik uzten ez duelako.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua

[Biktimari Laguntzeko Zerbitzua](#) Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko justizia-jauregietan dago eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei prozesu osoan zehar aurrez aurre, doan, modu konfidentzian, banaka eta era pertsonalizatuan orientabidea eta laguntza eskaintzen die.

Borondatezko zerbitzua da eta bertara honetarako joan daiteke:

- Laguntza psikologikoa jasotzeko.
- Prozesu judiziala nolako izango den azaltzeko eta lagunduta joateko.
- Epaiketarako prestatzeko.
- Doako justizia izapidetzeko, betiere eskatutako baldintzak betez gero.
- Eskubideen, lege-prozeduren eta gizarte- eta arreta-arloko baliabideen inguruan informazioa jasotzeko.

Bestetik, zerbitzu honek helburu hauek dituen **"ZUREKIN"- Genero-Indarkeriaren Biktima diren emakumeei arlo judizialean laguntza integrala emateko programa pilotua** eskaintzen du: epaitegietako kontuekin sor daitekeen antsietateari eustea; prozesuari buruzko informazio zehatza eta pertsonalizatua eskainiz, epaiketari aurre egiteko biktimari beharrezko tresnak ematea; eta biktima epaiketarako prestatzea, ingurunera ohitu dadin edo prozesu judizialean edo horri loturiko sistemetan jarritako itxaropenak maila errealetan jar ditzan.

Emakunderen Defentsa Zerbitzua

Sexuagatiko bereizkeria egoeren aurreko herritarren defentsarako zerbitzua da eta emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunaren eskubidea babesten du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Posta elektronikoa: defentsoria@ej-gv.es

www.euskadi.net/defentsoria

Telefonoak: 945 016 552 / 945 016 553 / 945 016 554

Berdindu! Zerbitzua

Berdindu! Sexu- eta genero- aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publikoa da

ARABA: berdindu.araba@gmail.com 945 029 079

BIZKAIA: berdindu.bizkaia@gmail.com 94 645 33 22

GIPUZKOA: berdindu.gipuzkoa@gmail.com 943 216 551

Arreta ordutegia: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 19:00etara.

Nafarroa

Biktimei arreta integrala emateko taldeak (Equipos de atención integral a víctimas)

112 – Sos Navarra telefonora deitu.

Informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak, eta esku-hartze integrala (arreta soziala, psikologikoa, hezkuntzako, juridikoa, gizarte- eta babes-baliabideetarako sarbidea, etab.).

Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoa (Nafarroako Gobernua) (Oficina de Atención a las Víctimas de Delitos (Gobierno de Navarra))

Helbidea: PLAZA JUEZ ELIO 1, PLANTA BAJA. 31011 - Iruñea (sarbidea: Monasterio de Irache 22.)

Telefonoak: 848-423376 / 848-421387 / 848-427671

Posta elektronikoa: ofidel@navarra.es

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (hitzordua eskatuta).

Sexu-indarkeriari Arreta Integrala Emateko Zentroa (CAIVS) (Centro de Atención Integral a las Violencias Sexuales (CAIVS))

Nafarroako Gobernuaren zerbitzua

Arreta ordutegia: etenik gabeko ordutegia eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan

Helbidea: Calle Xavier Mina 4, Pamplona

Telefonoak: 848 463 999 / 621 690 351

Posta elektronikoa: caivs@fundaciongizain.es

<https://www.centrodeatencionintegralalaviolenciassexualesdenavarra.es/>

